

**2009KO ABENDUAREN 21EAN GOBERNU BATZARRAK EGINDAKO
OHIKO BILERAREN AKTA**

LEKUA: Beasaingo Udaletxea

ARETOA: Batzar Aretoa

EGUNA: Hogeita bata

HILABETEA: Abendua

URTEA: Bi mila eta bederatz

HASIERAKO ORDUA: Goizeko bederatz

BATZARRALDIAREN IZAERA: Ohikoa

DEIALDIA: Lehena

OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA: Sei (6)

MAHAIBURUA: Patxi Plazaola Muguruza

BILDUAK: Aitor Aldasoro Iturbe

Fernando Boada González

Begoña Lasa Royuela

Julio Herreros Serna

ETORRI GABEA: Jon Kortaberria Lasa

IDAZKARIA: Itziar Arostegi Apaolaza

1.- AURREKO AKTA. 2009ko azaroaren 13ko aktaren berri eman ondoren, bildutakoek aho batez onartu dute akta zeresanik ez dagoelako.

2.- KONTRATUA BERTAN BEHERA UZTEA. 8. Sektoreko Hegoaldeko lursaila urbanizatzeko obrak.

Alkateak ondorengo proposamenaren berri eman du:

“Gaia: kontratu administratiboa bertan behera uztea.

2008ko abenduaren 9ko datarekin, URBYCOLAN enpresarekin kontratu administratiboa sinatu zen, 8. Sektoreko Hegoaldeko lursaila urbanizatzeko obrak egiteko. Baina, ondoren aipatzen diren arrazoiengatik, hau da:

- ADIFek ez du eman aipatutako obrak egiteko baimena, eremu horretako jabe batekin auzi-gatazka duelako.
- Gipuzkoako Administrazioaren aurkako Auzi-gaien Epaitegiaren Sententzia, hegoaldeko lursailan dagoen 975,35 m²ko terrenoa auzigaiekoa aitortzen duena.

- A lursailaren %10,38an jabea den G.P ALGAR, S.L, konkurtso-fasean dagoenaren aitorpena.

Udalak agindu zuen obrei hasiera ez emateko eta nahiz eta denbora pasa epe motzean aipatutako arazoak konpontzea ez da aurreikusten. Beraz, ulertu da ez dagoela inolako beharrik kontratua mantentzeko, izan ere bertan behera uzteak ez du saihesten Iparraldeko lursailaren urbanizazio-obrekin jarraitzea. Hemen bait dago interes publikoa obrekin jarraitzeko eta gainera beste contratista bati esleituta daude.

Gainera, 2009ko abenduaren 3ko erregistro-sarrera duen idatziaren bitartez, URBYCOLANek espresuki uko egiten dio obra horiek egiteari nahiz legez dagokion lortu gabeko irabaziari zeren eta obrak adjudikatu zirenetik nahiz eta denbora pasa Udalak ez ditu egin beharreko izapideak burutu obrei hasiera eman ahal izateko.

Horren ondorioz, hirigintza batzordeak, eskuduntza duen organoari, hau da, Gobernu Batzordeari ondorengo erabaki-proposamena egin dio:

Lehenik. URBYCOLAN, S.L.ri jakinaraztea, 8. Sektoreko Hegoaldeko lursaila urbanizatzeko obrak egiteko, sinatutako kontratu administratiboa bertan behera uzten dela, bi aldeek horrela adostu dutelako. Horren ondorioz, kontratistak aurkeztutako 16.085,49 €ko behin betiko fidantza bueltatzea dakar.

Bigarren. Erabaki honen berri URBYCOLAN, S.L.ri ematea.”

Bozketa eginda, aho batez onartu da proposamena.

3.- LOKALA EROSTEA. Zazpiturrieta kalean lokala erostea.

Gaia: lokala erostea

AURREKARIAK

Zerbitzu publikoetarako erabiltzeko, udal ondarea handitze arren, Udalak interesa du José Luis Ormazabal Garmendia jaunaren (15.215.863) eta María del Carmen López Iruretagoyena andrearen (15.222.681):lokala erostea. Lokala ondorengo da:

NÚMERO SEIS. Local número dos de la segunda planta. Es el de la izquierda según se mira al edificio desde la calle J. M. Iturrioz y tiene su acceso por una escalera pública que va desde dicha calle hasta el porche. Ocupa una

superficie de ciento dos metros sesenta y seis decímetros cuadrados y linda: Norte, subsuelo del edificio; Sur, fachada posterior que da a la calle J.M. Iturrioz y escalera pública; Este, subsuelo de la finca y local número uno de la misma planta y Oeste, dicha escalera y muro que lo separa del edificio señalado con los números uno, dos y tres. Le corresponde una cuota de participación de tres enteros y cincuenta y cuatro centésimas de otro entero por ciento (3,54%) con relación al total del valor del inmueble.

Finca, 4660 inscrita al Tomo 909, Libro 69, Folio 170 del Registro de la Propiedad de Tolosa.

Adostu den prezioa, 150.253,03 €koa denez, Gobernu Batzordeari dagokio erosketa burutzeko baimena ematea, 60.000 €ko gastua baino handiagoa delako.

Horren ondorioz, Alkateak Gobernu Batzordeari ondorengo erabaki-proposamena egiten dio:

Lehenik. José Ormazabal Garmendia jaunarena eta María del Carmen López Iruretagoyena andrearena den eta aurrekarietan deskribatu den lokala erostea, EHUN ETA BERROGEITA HAMAR MILA BERREHUN ETA BERROGEITA HAMAHIRU EURO ETA HIRU ZENTIMO (150.253,03 €) prezioan.

Bigarren. Alkate jaunari baimena ematea, erabaki hau formalizatzeko behar diren dokumentuak sinatzeko.”

Bozketa eginda, aho batez onartu da proposamena.

4.- IRIGOIEN POLIGONOKO OBRAK.

Ezagutzera eman da, 2009ko abenduaren 14ko datarekin, Udal-aparejadoreak egindako txostena, Irigoien poligonoko urbanizazio obrei buruz, hain zuzen ere, ondorengoak: “obra horiek, 696.274,70 € (BEZ barne) prezioan lizitatu ziren, adjudikaziodunak egindako eskaintzaren arabera, 569.206,20 €tan (BEZ barne) esleitu ziren.

Esleipen eta lizitazio kopuruaren artean, 127.068,50 €ko (BEZ barne) aldea dago eta horrek %18,25eko baja suposatzen du.

Obrak exekutatzeko garaian, ikusi da proiektatutako eta egikaritze-eremuaren arteko neurketan ez direla berdinak. Hain zuzen ere, 1etik 6ra bitarteko pabiloien ate-aurreak ez ziren neurtu.

Horren ondorioz, neurketak gehitzea proposatzen da, obraren eremura doitzeko, muga %18,25ekoa izanik. Horrela, 696.274,70 €ko kopurua lortuko litzateke eta hau da, hain zuzen ere, Estatuko Fondoa dela eta eskatutako dirulaguntza.”

Idazkariak adierazi du, Legeak dionaren arabera, akatsak direnean %20ra bitarte ez dagoela kontratuaren aldaketarik egin behar. Aldiz, aldaketak suposatzen badu obra-unitate gehiago egitea, %10etik gora, kontratuaren aldaketa egin behar da.

Bildutakoek onartu egin dute kontratua handitzea, neurketa akatsak izan direla eta.

4.- ESKAERA ETA GALDERAK

Eskaera eta galderen atalean, ez da inolakorik aurkeztu.

Eta tratatzeko besterik ezean, bilera goizeko bederatziak eta erdietan amaitu da eta nik, idazkari naizen honek, akta hau idatzi eta sinatu dut.